

# BESTELAKO XEDAPENAK

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 2228

*AGINDUA, 2023ko maiatzaren 2koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena. Agindu honen bitartez, musika-jarduera profesionaletarako dirulaguntzetarako deialdia egiten da 2023ko ekitaldirako, eta dirulaguntza horiek emateko arauak ezartzen dira.*

Arte- eta kultura-alorreko jardueri loturiko eskumenak eta haien zabalkundeari dagozkionak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagozkio, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan.

Bestalde, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 12. artikulua araber, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio dekretu honen 4. artikuluan musika, arte eszeniko, liburu, ikus-entzunezko, ikusizko arte eta kultura- eta sormen-industrien arloetan ezarritako eginkizunak betetzea.

Zuzendaritza horrek, bere eskumenen esparruan, egoki deritzo musika-jarduera profesionala sustatzeari, diruz lagunduta musikaren arloko ekoizpen-, sustapen- eta zabalkunde-proiektuak. Horretarako, dirulaguntza-modalitate hauek jasotzen dira: partituren edizioa, musika-proiektu unitarioak eta musika-ekimen enpresarialak. Bestalde, musika-aretoen jarduera Zuzen-Zuzenean zirkuituaren modalitatearen bidez aintzatetsi nahi da, areto horietan euskal musika taldeen presentzia sustatuz eta musika-jarduerarekin lotutako jarduera osagarriak garatuz. Era berean, musika-zikloen modalitatearen bidez, musika-eskaintza tematiko askotarikoa eta egonkorra sustatu nahi da.

Horrekin guztiarekin, balio-kate osoa indartu nahi da, sorkuntzatik erakustaldira eta kontsumora arte, musikarien lana eta enpresen eta programazioaren egonkortasuna babestuz. Hori guztia kulturaren ikuspegitik ez ezik, merkataritzaren ikuspegitik ere egin behar da, musikariek beren lana aintzatetsi dezaten merkatuak zabalduz, publiko berriak sortuz eta fidelizatuz eta, horrela, herrialdeko musika-jardueraren finantzaketa eta bideragarritasuna areagotuz.

Halaber, agindu hau Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2021-2024 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2021eko otsailaren 18ko Aginduaren bidez onartua) eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2023ko urtarrilaren 26ko Aginduaren bidez onartutako 2023ko Dirulaguntzen Urteko Planean (Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren webgunean argitaratuak) sartuta dago.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea, modalitateak eta proiektuak garatzeko epea.

1.– Agindu honen bitartez, 2023ko ekitaldiko musika-jarduera profesionaletarako dirulaguntzak nola emango diren arautuko da.

2.– Deialdi hau dirulaguntza-modalitate hauetarako da:

- II. kapitulua: Partituren edizioa.
- III. kapitulua: Musika-proiektu unitarioak.
- IV. kapitulua: Musika-ekimen enpresarialak.
- V. kapitulua: Zuzen-Zuzenean zirkuitua.
- VI. kapitulua: Musika-zikloak.

3.– Partituren edizioa, musika-proiektu unitarioen eta musika-ekimen enpresarialen modalitateetan diruz laguntzen diren proiektuak 2023ko urtarrilaren 1etik 2024ko azaroaren 30era bitartean garatu behar dira.

4.– Zuzen-Zuzenean zirkuituaren eta Musika-zikloen modalitateetarako, deialdiak jasotako epea 2023ko irailaren 1etik 2024ko abuztuaren 31ra bitartekoa da.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak eta dirulaguntzak emateko prozedura.

1.– Dirulaguntza hauen gehieneko zenbateko orokorra 860.000 euro izango da, eta aipatutako modalitateen artean honela banatuko da:

- a) Partituren edizioa: 45.000 euro.
- b) Musika-proiektu unitarioak: 285.000 euro.
- c) Musika-ekimen enpresarialak: 245.000 euro.
- d) Zuzen-Zuzenean zirkuitua: 220.000 euro.
- e) Musika-zikloak: 65.000 euro.

2.– Dirulaguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da; horretarako, modalitate bakoitzean ezarritako irizpideak aplikatuta, eta deialdi honen 10. artikuluan finkaturiko prozeduraren arabera, eskabideak baloratu eta dirulaguntzak banatuko dira, deialdiari esleitutako kredituak agortu arte, hala badagokio.

3.– Eskabide kopuruagatik, eskakizunak ez betetzeagatik, edo dagozkion proiektuek 10. artikuluan aurreikusitako balorazio-prozeduran ezarritako gutxienerako puntuazioa ez lortzeagatik, modalitate baterako ezarritako diru-kopurua agortzen ez bada, Kultura Sustatzeko zuzendariak gainerako kopurua ebatzi gabeko beste modalitateetara eramatea proposatu ahalko dio Kulturako sailburuordeari. Kasu horretan, intsuldaketak modu proportzionalan egingo dira, modalitate bakoitzeko hasierako zuzkiduraren eta eskatutako zenbatekoaren arteko desorekaren arabera.

3. artikulua.– Onuradun izateko baldintzak.

1.– Modalitate bakoitzerako finkaturiko bestelako baldintzak gorabehera, agindu honetan arautzen diren dirulaguntzen onuradunek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Helbidea edo sozietate-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duen pertsona fisiko edo juridiko-pribatua duen pertsona pribatua izatea edo, bestela, aurkezten den proiektuaren helburua Euskal Herrian jaio edo bizi diren musikarien lanak ekoiztea izatea, baldin eta artista horiek nagusiki euskara erabiltzen badute beren ohiko erreperatorioan.

b) Ekonomia-jardueren gaineko zergan musika-jarduerako epigrafe batean alta emanda egoitea eta, pertsona juridikoen kasuan, sozietatearen xedeak zerikusia izatea musika-jardueren garapenarekin.

2.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa da zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, baita, hala badagokio, dirulaguntzak itzultzeko prozeduren ondorioz sortutakoak ere.

3.– Pertsona edo erakunde hauek ezin izango dira onuradun izan:

a) Dirulaguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik dutenak, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik dutenak, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoaren arabera.

b) Krisian dauden enpresak, krisian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko zuzentarauen definizioaren arabera (EBAO C249, 2014-07-31).

c) Berreskuratzeko agindu baten mende daudenak, Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren.

d) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako gainerako debekuren bat dutenek.

4. artikulua.– Bideragarritasuna, diruz lagundu daitezkeen gastuak, azpikontratazioa eta dirulaguntzen muga orokorra.

1.– Proiektuak, ekonomia aldetik bideragarriak direla egiaztatzeko, aurrera eramateko beharrezko gastu arruntaren eta hura estaltzeko aurreikusitako diru-sarreraren arteko aurrekontu doituak aurkeztu behar da; sarrera horien barruan deialdi honetan eskatutako kopurua barne delarik. Eskabideak ezin izango du inola ere gainditu modalitate bakoitzerako aurreikusitako dirulaguntza-ren gehieneko zenbatekoa.

2.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluaaren esparruan, diruz lagundu daitezkeen eta justifikatu behar diren gastuak, proiektu bakoitza garatzeko behar-beharrezkoak direnak izango dira, modalitate eta jardueraren tipologiaren arabera: koordinazio eta kudeaketa administratiboa; sorkuntza, ekoizpena; interpretazio artistikoa edo garapena; ekoizpen teknikoa; sustapena eta hedapena. Kanpo geratuko dira inbertsio- eta BEZ-gastuak.

3.– Eskatzaileak edo erakundeko langileek zuzenean garatzen dituzten koordinazio orokorreko, administrazio-kudeaketako eta sustapeneko gastuek ezin izango dute proiektuaren aurrekontuaren % 30 gainditu.

4.– Aurrekontu osoari dagokionez, eskatzaileak proiektuaren memorian aurkeztu beharko ditu kalkulatzeko erabilitako erreferentzia zehatzak (6.2.b artikulua).

5.– Onuradunak hirugarren batzuekin azpikontratatzeko duen jarduera, berriz, diruz lagundutako jardueraren % 75era iritsi ahal izango da, azpikontratu guztien prezioak batuta. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira onuradunak dirulaguntza jaso duen proiektua bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

Diruz lagun daitezkeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen baditu, onuradunak hor-

nitzaile desberdinen gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu, obrarako konpromisoa hartu, zerbitzua eman edo ondasuna entregatu aurretik, salbu eta ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakorik egiten, ematen edo hornitzen duen behar adina erakunde, edo gastua aurretik egin ez bada.

6.– Modalitate guztietarako, administrazio publikoetatik jasotako dirulaguntza guztiek ezingo dute gainditu diruz lagundutako jardueraren kostuaren % 80.

5. artikulua.– Eskabideak: epea eta moduak.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Pertsona juridikoek bide elektronikoz aurkeztu beharko dituzte eskabideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez.

Pertsona fisikoek bide presentziala ere aukeratu ahal izango dute eskabide-izapidean eta dokumentazioa aurkeztean, baina horrek ez du behartzen prozeduraren hurrengo izapideetan hori erabiltzera, eta edozein unetan aldatu ahal izango dute.

3.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak, nola tramitatu behar diren azaltzen dituzten argibideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan daude ikusgai, honako helbide elektroniko hauetan:

– Partituren edizioaren modalitatea: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0247326>

– Musika proiektu unitarioen modalitatea: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0247327>

– Musika ekimen enpresarialen modalitatea: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0247328>

– Zuzen-Zuzenean zirkuituaren modalitatea: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0247329>

– Musika zikloen modalitatea: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0247330>

Eduki horiek eskuragarri izango dira Zuzenean-Administrazio egoitzetan ere, beti ere, aldeztu aurretik hitzordua eskatuta.

4.– Eskabidearen ondoko izapideak, bide elektronikoa erabiliz, hemen egin daitezke: <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

6.– Aurrez aurreko bidea hautatzen duten pertsonak Zuzenean Zerbitzuko bulegoetan, aldeztu aurretik hitzordua eskatuta soilik (<https://euskadi.eus/hitzordua-zuzenean>); EAEko erregistro laguntzaileetan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan jasotakoak) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean aurkeztu ahal izango dute beren eskabidea.

7.– Eskabidea eta ondorengo izapideak pertsona edo erakunde eskatzailearen ordezkari batek egin ahal izango ditu. Horretarako, ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publi-

koaren Ahalordetzeen Erregistro Elektronikokoan inskribatu ahal izango da, helbide honen bidez: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

8.– Pertsona eta erakunde eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskabidea eta gainerako dokumentazioa. Halaber, pertsona edo erakunde eskatzaileak aurreratu duen hizkuntza hori erabiliko da prozedura osoan, Euskararen erabilpena arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duten moduan.

9.– Eskabideak aurkezteak deialdi honetako oinarriak definitzen dituzten baldintzak espresuki eta formalki onartu direla adierazten du.

6. artikulua.– Betekizunen akreditazioa, ekarri beharreko dokumentazioa eta erantzukizunpeko adierazpenak.

1.– Eskatzaileari buruzko agiriak.

a) Pertsona fisikoen kasuan:

– Eskabidea izenpetzen duen pertsonaren identitatea egiaztatzekeo agiria.

b) Pertsona juridikoen kasuan:

Administrazio honi dagozkion erregistroetan inskribatutako erakundeak: eskabidean adieraziko dute zein erregistroetan dauden inskribatuta, eta ez dute inskripzio hori egiaztatzekeo agiririk aurkeztu behar.

Administrazio honetakoak ez diren erregistroetan inskribatutako entitateek haien legezko erantzukizunak egiaztatzekeo behar dute, beren izaera juridikoaren arabera, bai eta pertsona ordezkarriaren identitatea ere; gainera, ordezkaritza-ahalorde nahikoa dutela justifikatu behar dute. Horretarako, agiri hauek aurkeztuko dituzte:

– Eratze-eskritura eta estatutuak, eta dagokien Erregistro Publikoetan inskribatuta daude-lako egiaztagiria.

– Identifikazio fiskalaren zenbakiaren txartela.

– Pertsona juridikoaren legezko ordezkarriaren identitatea egiaztatzekeo agiria, bai eta haren ordezkaritza-ahalordearena ere.

c) Pertsona fisiko nahiz juridikoentzat:

Deialdi honen organo kudeatzaileak egiaztatuko du, automatikoki, dirulaguntza eskatu duten pertsonak edo erakundeak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela, eta horretarako ez du pertsona horien oniritzia behar, halaxe xedatzen du-eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak, zeina azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaz onartu baitzen. Hala ere, eskatzaileek berriaz uka dezakete baimen hori, baina, kasu horretan, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar dituzte.

d) Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko. Administrazioak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak aurka egiten ez badu.

## 2.– Proiektuari dagokion dokumentazioa.

### 1) Modalitate guztietarako dokumentazioa:

#### a) Proiektuaren memoria orokorra, eduki hauekin:

- Proiektuaren eta jardueren aurkezpena.
- Pertsona edo entitate eskatzailearen 2022ko ibilbidea eta jarduerak.

#### b) Modalitate bakoitzari dagokion formularioa, deskargatzeko ereduaren arabera:

- Eskatzailearen profila.
- Proiektuaren laburpena.
- Artistaren edo musika-taldearen datuak (musika-ekoizpenetarako, Proiektu unitarioen eta Enpresa-ekimenen modalitateetan);
- 2022an programaturiko kontzertuak (Zuzen-Zuzenean zirkuituaren modalitatea).
- Zikloaren azken bi edizioetako datuak (Musika-zikloen modalitatea).
- Beste balorazio-irizpide batzuei buruzko datuak.
- Proiektuaren aurrekontua: proiektuaren gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspena; horiek kalkulatzeko erreferentziak eta, hala badagokio, beste dirulaguntza batzuen aitorpena.

### 2) Modalitateetako dokumentu espezifikoak:

#### a) Partituren edizioen, Proiektu unitarioen eta Enpresa-ekimenen modalitateetako produkzio-proiektuak: egile-eskubideei buruzko ziurtagiria edo aitorpena.

#### b) Zuzen-Zuzenean zirkuituaren modalitatea:

- Musika-ekitaldiak antolatzeko legezko lizentzia eta edukiera-erreferentzia.
- Eskatzailea ez bada aretoaren gerentea: gerentzia horren egiaztagiria, eskatzaileari deialdi honen xede den musika-programazioa kudeatzeko gaitasuna ematen diona.

#### c) Musika-zikloen modalitatea: hala badagokio, zikloaren azken bi edizioetan lortutako dirulaguntzen egiaztapena.

## 3.– Dokumentazioa aurkezteko formatua.

Eskabide-orriarekin batera, eta erabilitako bidea edonolakoa dela ere (presentziala edo elektronikoa), dokumentazio guztia, ahal delarik, euskarri elektronikoan aurkeztu behar da, honako ezaugarri hauen arabera:

a) Deskargatzeko ereduak erabiliko dira. Bestelako kasuetan, ahal bada, dokumentazioa PDF formatuan aurkeztuko da.

b) Dokumentazio elektronikoko guztiaren gehienezko tamaina 30 Mb izango da.

c) Musika edo ikus-entzunezko erreferentziak web-helbideak emanez aurkeztu ahal izango dira, dagokion formularioan.

#### 4.– Erantzukizunpeko adierazpenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak ezartzen duenaren arabera (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua), erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko dira honako betebeharrak hauek:

a) Xede bera duten eta bestelako administrazioei edo ente publiko zein pribatuei eskatutako eta, hala badagokio, haietatik jasotako dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen berri ematea.

b) Eskabidea egiten duen pertsonak edo erakundeak ez du izan behar dirulaguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dion zigor administratibo edo penalik, ezta dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexu-diskriminazioa egitearen ondoriozkoak barne (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrena).

c) Erakundearen gobernu-organoak deialdian parte hartzea erabaki duela.

d) Eskabidean eta erantsitako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak konplitzen dituela.

#### 7. artikulua.– Deialdia eta emandako dirulaguntzak kudeatzeko organoa.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzen kudeaketa-zereginak egitea.

Era berean, dirulaguntza lortu duten proiektuak modu egokian gauzatzen direla ziurtatzeko, zuzendaritza horrek jarraipena egingo die, eta horretarako egoki ikusten dituen ikuskapenak egin ahal izango ditu. Ondorio horietarako, onuradunak behartuta daude eskatzen zaien dokumentazioa eta informazioa aurkeztera.

#### 8. artikulua.– Eskakerak aztertzea, zuzentzea eta onartzea.

1.– Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den dokumenturen bat falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebatzpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

2.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, tramitazio elektronikoa derrigorrez egin behar duen baten batek aurrez aurreko eskaera egiten badu, aurkezpen elektronikoaren bitartez zuzen dezala eskatuko zaio, eta, ondorio horietarako, zuzenketa hori egin den eguna joko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.

3.– Akatsak zuzentzeko fasea amaitu ondoren, organo kudeatzaileak aurkeztutako eskabideak eta dokumentuak aztertuko ditu eta egiaztatuko du deialdiko eskakizun orokorrak eta modalitate bakoitzeko eskakizun espezifiko guztiak betetzen direla. Horren ondoren, aurreikusitako balorazio-prozesurako zer proiektu onartu erabakiko du.

Edonola ere, jasotako eskabide guztiak agindu honen 12. artikuluari jarraituz ebatzi eta jakinaraziko dira.

## 9. artikulua.– Balorazio-batzordeak.

1.– Onartutako proiektuak aztertu eta baloratzeko, balorazio-batzorde bat osatuko da modalitate bakoitzerako. Haien osaera Kulturako sailburuordearen ebazpen baten bitartez jakinaraziko da, eta ebazpen hori EHAA-n argitaratuko da, batzordeak lehenengo bilera egin baino lehen.

2.– Balorazio Batzordeak Kultura sailburuordeak izendatuko ditu eta honako hauek osatuko dituzte:

Lehendakaria: Kultura Sustatzeko zuzendaria, edo hark eskuordetzen duena.

Bokalak: bi eta bost pertsona artean, musikarekin lotutako profesionalen artean izendatuak, independenteak edo sektorea ordezkatzeko duten Autonomia Erkidegoko erakundeetan integratuak.

3.– Idazkaria, berriz, baina bertako kide izan gabe, zuzendaritza horretako teknikari bat izango da, zuzendariak aukeratua. Idazkariak hitza izango du, baina botorik ez.

4.– Balorazio-batzordeak eratzeko, ezinbestekoa da Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 artikulua betetzea.

5.– Modalitate bakoitzeko balorazio-batzordeak, ezarritako esleipen-irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamena egingo dio Kulturako sailburuordeari.

6.– Batzordeek, beharrezkoa irizten diotenean, egoki ikusten diren argibideak emateko eskatu ahal izango diete eskatzaileei, proiektuen arduradunekin horretarako elkarrizketak hitzartuz ere bai, behar izanez gero. Halaber, musika-ekimen enpresarialen modalitatean eskabidea egiten duten pertsona guztiek Batzordearen aurrean beren proiektua defendatzeko aukera izango dute, horrela eskatuz gero. Proiektu bakoitzari 15 minutu eskainiko zaizkio, gehienez.

## 10. artikulua.– Baloraziorako eta dirulaguntzak banatzeko prozedura.

1.– Partituren edizioak, proiektu unitarioak, enpresa-ekimenak eta musika-zikloak modalitateetan aurkeztutako proiektuen balorazioa bi fasetan egingo da: lehenengo fasean, eskabideek modalitate horretan eman daitezkeen puntuen % 50 lortu beharko dute gutxienez, bigarren balorazio-fasera igaro ahal izateko. Era berean, baztertu egingo dira puntuazio osoaren % 55era iristen ez diren proiektuak.

2.– Modalitate horietako dirulaguntzen zenbatekoa zehazteko, prozedura honi jarraituko zaio:

a) Ondoen puntuatutako proiektuari eskatutako kopuruaren % 100 emango zaio, eta hurrengo sailkatuei, berriz, aipatutako erreferentzien proportziozko zenbatekoak, baina inoiz ez eskatutako zenbatekoaren % 70etik behera, eta betiere 4.6 artikuluan aurreikusitako mugaren arabera.

b) Kalkulu hori egin ondoren soberakinen bat geratzen bada, zenbateko hori, hasiera batean, oraindik ebatzi gabe dagoen beste modalitate batera aldatu ahal izango da, 2.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Bestela, soberakin bera erabiliko da aurrez modalitate berean kalkulatuak kopuruak gehitzeko, betiere a) apartatuan aurreikusitako prozeduraren eta mugen arabera.

3.– Zuzen-Zuzenean zirkuituaren modalitatean, 28. artikuluan aurreikusitako balorazio- eta banaketa-prozedurak aplikatuko dira, baita, hala badagokio, aurreko 2.b) paragrafoa ere.

4.– Nolanahi ere, artikulua honetan araututakoaren arabera, dirulaguntza lortzea modalitate bakoitzeko diru-erabilgarritasunaren arabera izango da.

11. artikulua.– Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna eta modalitateen artekoa.

1.– Agindu honen 4.6 artikuluan eta artikulua honen gainerako paragrafoetan adierazitakoa ezertan eragotzi gabe, deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatu batzuek helburu berbererako emandakoekin, betiere gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Gainfinantzaketarik badago, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehieneko mugaraino.

2.– Deialdi honetan aurreikusten diren dirulaguntzak ez dira bateragarriak izango Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak emandako dirulaguntzekin, ez proiektu bera garatzeko ez eta horren aurrekontuan jasotako zati bat egiteko ere.

3.– Deialdiko modalitatearen batean dirulaguntza jasotzen duen musika-proiektu batek ezingo du beste modalitateetako dirulaguntzarik jaso proiektu bera garatzeko ez eta horren aurrekontuan jasotako zati baterako ere, bateraezinak baitira.

4.– Era berean, ezingo zaizkio eskatzaile berari dirulaguntzak eman Musika-proiektu unitarioen, Musika-ekimen enpresarialen eta Zuzen-Zuzenean zirkuituaren modalitateetan. Orobat, elkarren artean bateraezinak dira Zuzen-Zuzenean zirkuituaren eta Musika-zikloen modalitateak.

12. artikulua.– Ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Deialdi honetako dirulaguntzak esleitzeko ebazpena Kulturako sailburuordeak emango du, Balorazio Batzordearen proposamena ikusita, eta agindu hau indarrean jartzen denetik sei hilabete epean interesdun guztiei jakinaraziko zaie. Gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da emandako dirulaguntzen zerrenda osoa. Lehenik egin den jakinarazpen-data hartuko da jakinarazpen-datatzat.

2.– Adierazitako epea igaro, eta interesdunari ez bazaio ebazpena jakinarazi, eskabidea ezetsizat joko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1.a) artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3.– Jakinarazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikulua araberak egingo da, hargatik eragotzi gabe 42. eta 43. artikuluetan ezarritakoa.

4.– Ebazpenen jakinarazpen elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren «nire karpeta» bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 30.2 artikuluan xedaturikoari jarraituz, sistemak ahalbidetu behar du egiaztatzea jakinarazpena zer egun eta orduan jarri den interesdunaren eskura, eta interesduna noiz sartu den edukira. Sartzen den momentutik aurrera pentsatuko da jakinarazpena eginda dagoela.

Jakin baldin badakigu iritsi zaiola jakinarazpena, baina hamar egun natural geroago oraindik ez baldin bada edukira sartu, ulertuko dugu jakinarazpena ukatu egin duela. Izapidea eginda dagoela ulertuko da, eta prozedurak aurrera jarraituko du, non eta ez den garbi geratzen, ofizioz edo interesdunak eskaturik, teknikoki ezinezkoa izan zaiola edukira sartzea.

5.– Pertsonak edo erakundeak itzulketa-prozeduraren bat izapidetzen ari bada, prozedura hori amaitzearen mende geratuko da laguntza ematea, eta, itzulketa-prozedura amaituta, pertsonak ordaintzeko betebeharra badu, soilik eman ahal izango da betebeharra duen pertsonak zorra bere borondatez ordaintzen badu, edo zorra atzeratzen eta bermatzen badu, edo itzulketa-ebazpena aurkaratzen denean etetea erabakitzen bada. Kasu horietatik kanpo, pertsona edo erakundeak

pertsona edo erakunde onuraduna izateko debekua izango luke, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean ez dituelako, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketako Erregelamendu Orokorra onartzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuaren lehen xedapen gehigarriaren arabera.

### 13. artikulua.– Betebeharrak.

Laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretatik, pertsona onuradunek dirulaguntza eman zaiela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean berariaz uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Diruz lagundutako proiektua deialdian aurkeztutako baldintzetan gauzatzea. Hala ere, salbuespen gisa, funtsezko aldaketarik ez dakarten eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoari eragiten ez dioten aldaketak egin ahal izango dira. Proiektuak justifikatzeko epea amaitu baino hilabete lehenago, gutxienez, jakinarazi beharko zaizkio idatziz Kulturako sailburuordeari (14.2 artikulua), eta hamabost eguneko epea izango du, jakinarazpena jasotzen den egunetik, onartzeko edo ez onartzeko. Epe hori igaro eta berariazko jakinarazpenik egin ez bada, proposatutako aldaketa onartutzat joko da.

c) Deialdi honetan jasotako jardueri dagozkien betebeharrak eta araudi profesionalak eta lanekoak betetzea, hain zuzen: musika-obren ekoizpena eta edizioa; aretoen kudeaketa; musika-jardueren programazioa eta antolaketa.

d) Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dirulaguntzen erabilera kontrolatzeko behar duten informazio guztia ematea.

e) Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagundutako edizioetan, katalogoetan, programetan, iragarpen-karteletan edo diruz lagundutako obrari edo jarduerari buruzko beste edozein materialetan emandako dirulaguntza berariaz aipatzea. Material hori, Euskal Autonomia Erkidegoari zuzenduta dagoenean, gutxienez bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko da.

f) Agindu honetan ezarritakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Printzipio Antolatzaileei buruzko azaroaren 11ko 1/1997 Dekretuaren 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak eta zeregin guztiak, bai eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 14. artikuluan jasotako gainerakoak ere.

### 14. artikulua.– Dirulaguntzaren ordainketa eta justifikazioa.

1.– Dirulaguntzak honela ordainduko dira:

a) Lehenengo ordainketa, emandako dirulaguntzaren % 50, 13.a) artikuluan aipatutako epea igarota, dirulaguntzari uko egin ez bazaio.

b) Gainerako % 50a, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, hurrengo apartatuan xedatutakoaren arabera.

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari (PFEZ) dagozkion atxikipenak eta konturako ordainketak kenduko zaizkio laguntza edo dirulaguntzaren zenbatekoari, zerga horren araudia aplikatuz hala badagokio.

2.– Onuradunek, dagokion jarduera amaituta, betiere 2024ko azaroaren 30a baino lehen, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1) Egindako jardueri buruzko memoria laburra eta ebaluazioa.

## 2) Dagozkion agiri edo material hauek:

- a) Ekoizpen eta edizio grafikoak, soinudunak edo ikus-entzunezkoak: editatutako edo ekoiztutako materiala.
- b) Zuzeneko musika-ekoizpenen estreinaldiak: kontratua edo haren egiaztagiria. Errealizazioa.
- c) Partituren edizioa: obra ISMN (International Standard Music Number) erregistroan eta lege-gordailuan erregistratuta dagoela egiaztatzen duen agiria.
- d) Zuzen-Zuzenean zirkuituaren eta Musika-zikloen modalitateak: emandako dirulaguntzaren eremuan programaturiko kontzertuen eta taldeen zerrenda eta datuak (data, musika-taldeak, sarreraren prezioa eta publikoa).
- e) Diruz lagundutako edozein jarduerari dagokionez: jarduera sustatzeko edo zabaltzeko katalogoak, programak, kartelak eta landutako beste edozein material; Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak emandako dirulaguntzaren aipamenaz (13.e artikuluan aipaturiko betebeharra).

## 3) Justifikazio ekonomikoa:

Agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Burututako proiektua dela-eta izandako gastuen eta sarreraren balantzeari buruzko erantzukizunpeko aitorpena.
  - b) Diruz lagundutako programa edo jarduera gauzatzeak sorturiko gastuak justifikatzen dituzten dokumentu guztien zerrenda (5.3 artikuluan aipaturiko euskadi.eus-eko helbide elektronikoa ezarritako ereduaren arabera).
- Zuzen-Zuzenean zirkuituaren eta Musika-zikloen modalitateetarako, zerrenda horrek programaturiko kontzertu guztien gastu xehatuak jaso beharko ditu: katxea, ekoizpena eta sustapena.
- c) Proiektua garatzeko eginiko gastuak justifikatzeko egiaztagiriak eta fakturak. Zuzen-Zuzenean zirkuituaren eta Musika-zikloen modalitateetan, katxeei dagozkien fakturak aurkeztu beharko dira beti.
  - d) Helburu berbererako jasotako beste laguntzen aipamena, baldin eta, eskabidea aurkeztu zen unean, onuradunak horien berri ez izanagatik aitortu ez bazituen.

## 4) Dirulaguntzen justifikazioak aurkezteko kontuan hartu behar dira eskabide-aurkezpenak direla-eta agindu honen 5. artikuluan emandako argibideak. Halaber, justifikazio-ereduak artikuluko horretako 5.3 puntuan aipaturiko egoitza elektronikoa ikusgai daude.

Hirugarrenen alta elektronikoki izapidetu daiteke (izapidetze elektronikora behartuta dauden pertsonak horrela egin behar dute) dagokion zerbitzuaren bidez, eta hori ere eskuragarri dago egoitza elektronikoa, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

5.– Pertsona edo erakundea itzulketaren prozeduraren bat izapidetzen ari bada, prozedura hori amaitu egin beharko da dirulaguntza ordaintzeko, eta, itzulketaren prozedura amaituta, pertsonak zorra baldin badu, laguntza ordaindu ahalko da soilik obligaziopeko pertsonak zorra bere borondatez ordaintzen badu, edo zorra atzeratzen badu eta bermatzen badu, edo itzulketaren ebatzpenaren aurka egitean ordainketa etetea erabakitzen bada. Kasu horietatik kanpo, pertsona edo erakun-

deak pertsona edo erakunde onuraduna izateko debekua izango luke, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean ez dituelako, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketako Erregelamendu Orokorra onartzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuaren lehen xedapen gehigarriaren arabera.

15. artikulua.– Aldaketa-ebazpena.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero (betiere, helburua bete egin dela iritziz gero) edo beste edozein erakunde publiko zein pribatutatik dirulaguntzaren bat jasoz gero, dirulaguntzak esleitzeko emandako ebazpena aldatu egin ahal izango da. Horrelakoetan, Kulturako sailburuordeak likidazio-ebazpena emango du, dirulaguntzen zenbatekoak doitzeko.

16. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Hauek izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako dirulaguntza osoa edo zati bat agindu honetan adierazitako jardueraz bestelakoe-tan erabiltzea.

b) Agindu honetan edo dirulaguntza emateko egintzan adierazitako betebeharrak ez betetzea.

c) Dirulaguntzaren likidazioa egiteko ebazpenean adierazitako zenbatekoa epearen barruan ez itzultzea (hala badagokio).

d) Dirulaguntzekin lotutako beste edozer eta, zehazki, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotakoak.

2.– Ez-betetzen bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, betiere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren eta abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren pentzudan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko Dekretua, hurrenez hurren).

## II. KAPITULUA

### PARTITUREN EDIZIOAREN MODALITATEA

17. artikulua.– Xedea eta baldintzak.

1.– Modalitate honen xedea da partituren edizio eta banaketa profesionaleko proiektuak laguntzea, zuzenean zabalduak izateko, hain zuzen, 18. artikuluan araututakoaren arabera.

2.– Ezertan eragotzi gabe 3.1 artikuluan adierazitako baldintzak, eskatzaileek honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatu beharko dute:

a) 2020. urtea baino lehen musika-jarduera profesionala egin izana.

b) Euskal konpositoreen gutxienez hiru obra argitaratu izana 2020tik.

18. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak eta dirulaguntzen muga.

1.– Diruz lagundu ahal izango dira baldintza hauek betetzen dituzten proiektuak:

a) Obrei dagokienez: Euskal Herrian jaio edo bizi diren egileek konposatutako lanak argitaratzea. Puntualki, beste egile batzuen lanak ere aintzat hartu ahal izango dira, baldin eta, Balorazio

Batzordearen iritziz, intereskoak badira Euskal Herriko musika-jardueran edo -ondarean duten harremanagatik edo eraginagatik.

b) Banaketari dagokionez:

– Argitalpen inprimatua eginez gero, gutxienez 300 aleko tirada bat egitea (ganbarako obrak edo formatu handiko obra sinfonikoak izan ezik, non, obraren eta edizioaren helburuaren arabera, ohiko usuak kontuan hartuko baitira).

– Banaketa digitalaren kasuan, salmentarako plataforma komertziala izatea.

2.– Espresuki geratuko da deialdi honetatik kanpo material didaktikoen edizioa.

3.– Modalitate honetan, eskatzaile bakoitzak proiektu bakar baterako dirulaguntza jaso ahal izango du gehienez, nahiz eta horren barruan argitalpen proiektu desberdinak azaldu eta sartu aurrekontuan (lau gehienez).

4.– Dirulaguntza emanez gero, onuradun bati emango zaion dirulaguntza 7.500 euro izango da gehienez.

19. artikulua.– Esleipen-irizpideak.

Dirulaguntzen esleipena 2.2 eta 10 artikuluetan adierazitako prozeduraren eta ondoren zehazten diren irizpideen arabera egingo da.

1.– Lehen balorazio-fasea (guztizko puntuazioaren % 60).

Fase honetan, Balorazio Batzordeak irizpide eta ehuneko hauek aplikatuko ditu puntuazio orokorrari dagokionez:

a) Kulturaren, musikaren, ondarearen edota artearen ikuspegitik duen interesa, egilea eta editatu beharreko obra kontuan hartuta (% 35).

b) Argitalpen- eta hedapen-plana (% 10).

c) Proiektuaren aurrekontua eta finantzaketa, honako hauen arabera:

c.1.– Aurrekontuaren zehaztasuna eta koherentzia (% 10).

c.2.– Autofinantzaketa-maila (% 5).

2.– Bigarren balorazio-fasea (guztizko puntuazioaren % 40).

Lehenengo fasea gainditu duten proiektuak baloratuko dira, eta, beraz, puntuazioa handitu ahal izango dute, puntuazio orokorrarekiko irizpide eta ehuneko hauen arabera:

d) Erakunde eskatzailearen ibilbidea, honako hauen arabera:

d.1.– Euskal Herriko konpositoreen lanen jardueran eta katalogoan duen eragina (% 10).

d.2.– Erakundearen ibilbidea partituren edizioaren esparruan (% 5).

d.3.– Antzintasuna (% 5).

e) Euskararen presentzia edizio-planean (% 10).

f) Aurkeztutako proiektuan emakumeek osatutako partiturak editatzea (% 10).

## III. KAPITULUA

## MUSIKA-PROIEKTU UNITARIOEN MODALITATEA

20. artikulua.– Xedea eta baldintzak.

1.– Dirulaguntza-modalitate hau musika-proiektuak garatzen laguntzeko da, 21. artikuluan araututakoaren arabera.

2.– Hargatik eragotzi gabe 3.1 artikuluan adierazitako baldintzak, eskatzaileek honako baldintza hauek egiaztatu beharko dituzte:

a) 21.1.a) artikuluan aipatzen diren jardueretarako, dagokion musika-taldeak irizpide hauetako bat, gutxienez, betetzen duela:

a.1.– Bi disko gutxienez argitaratu izana, eta lehenengoa, 2018. urtea baino lehen.

a.2.– Bere musika ibilbide osoaren zehar, Euskaditik kanpo gutxienez 45 kontzertu profesional egin izana.

b) 21.1.b) artikuluan aipatutako jardueretarako, modalitate honetako arloetan bi proiektu gutxienez egin izana, 2018. urtearen ondoren.

3.– Aurreko paragrafoan aipatutako baldintzak betetzeko, musika-talde edo -proiektu berriak sustatzen dituzten pertsonen ibilbideari buruzko erreferentziak onartu ahal izango dira, betiere, balorazio-batzordearen iritziz, horiek behar bezala dokumentatzen badira egiletzari edo egilekide-zari buruzko ziurtagirien edo abalen bidez.

21. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak eta dirulaguntzen muga.

1.– Modalitate honen bitartez, jarduera hauek diruz lagundu ahal izango dira:

a) Euskal Herrian jaio edo bizi diren musikarien musika-ekoizpenak, edo haien erreperitorioan gehien erabiltzen den hizkuntza euskara denean:

Deialdi honen ondorioetarako, produktiotzat hartuko da musika-lan bat jendaurrean, zuzenean ala formatu fonografikoan edo beste batean, lehen aldiz aurkeztea ahalbidetzen duten aurretiazko entseguak eta emanaldi materialen multzoa eta gastuak.

b) Euskal musikaren alorreko bestelako jarduerak:

Jarduera mota hauek diruz lagundu ahal izango dira, baldin eta, Balorazio Batzordearen iritziz, dagokion proiektuaren memorian behar bezala egiaztatzen bada interesa eta eragina dutela kolektibo profesional zabaletan eta/edo gutxienez lurralde historikoetako bitan:

b.1.– Musika-ikerketa.

b.2.– Euskal Herriko musika-jardueraren zabalkunde orokorra egiteko jarduerak edo edukiak (artikulu honetako 4.b eta c apartatuetan aipatutakoak izan ezik). Jarduera horiei dagokienez, gutxienez 3 urteko ibilbidea duen hedapen-kanal bat dagoela egiaztatu beharko da.

b.3.– Publikoak sentsibilizatzea edo prestatzea.

b.4.– Musika-sektore profesionaleko agenteak prestatzea.

2.– Artikulu honetan aurreikusitako jardueri dagokienez, deialdi honen esparruan ezarritakoa baino garrantzi eta iraupen handiagoko beste batzuen fase partzial gisa formulatutako proiektuak aurkeztu ahal izango dira, baldin eta eskabidearen xede den proiektuan dirulaguntza justifikatzeko azken produktu zehatz bat aurreikusten eta formulatzen bada, 14. artikuluan ezarritako baldintza eta epeetan. Nolanahi ere, deialdi honetan dirulaguntza lortzeak ez luke horrelako proiektuetarako inolako lehentasunik edo meriturik ekarriko hurrengo deialdietan.

3.– Proiektuek, beren diseinu eta prestaketarako beharrezkoak diren zeregin eta materialei dagozkien lanak eta aurrekontuak jaso ahal izango dituzte, bai eta horien garapenari edo jendaurreko lehen aurkezpenari dagozkionak ere.

4.– Jarduera hauek ez dira diruz lagunduko:

a) Musika-ekoizpen baten lehen aurkezpen fonografikoaren edo zuzenekoaren ondorengo konzertuak eta berrargitalpenak.

b) Zuzeneko zirkuiturako musika-ekoizpenen sustapen, banaketa edo irudikapen komertziale-rako jarduerak edo materialak.

c) Musika-taldeen eta musika-ekoizpeneko edo -banaketako enpresen web orri partikularren egitura edo edukiak eguneratzea.

d) Formakuntza akademikora edo eskolarrera soilik bideratutako jardueren edo materialen edizioa.

e) Sariak eta lehiaketak.

f) Abesbatzen elkarrekin bultzatutako jarduerak; hala ere, horri dagokionez, balioetsi ahal izango dira, eta, hala badagokio, dirulaguntza jaso, ekoizpen fonografikoko proiektuak, profesionaltasun artistikoaren helburu eta erreferentzia egiaztatuekin.

5.– Modalitate honetan, eskatzaile bakoitzak proiektu bakar batentzako laguntza jaso ahal izango du, eta eman daitekeen dirulaguntza ezingo da izan 7.500 eurotik gorakoa.

22. artikulua.– Esleipen-irizpideak.

Dirulaguntzen esleipena 2.2 eta 10 artikuluetan adierazitako prozeduraren eta ondoren zehazten diren irizpideen arabera egingo da.

1.– Lehen balorazio-fasea (guztizko puntuazioaren % 65).

Fase honetan, Balorazio Batzordeak irizpide eta ehuneko hauek aplikatuko ditu puntuazio orokorrari dagokionez:

a) Proiektuaren interesa eta balio artistiko-kulturala (% 35).

– 21.1.a) artikulua eremuan sartutako proiektuetarako:

a.1.– Balio musikal-artistiko orokorra eta berrikuntza maila.

a.2.– Musika-ondarea berreskuratzeari begira duen balioa.

a.3.– Musikaren hedapenerako eta sentsibilizaziorako ekarpenak.

a.4.– Kanpoko musika-talde edo artistekiko lankidetzak eta ekoizpen artistikoa.

Irizpide horietako bakoitza 25 puntura arte baloratu ahal izango da, batura osoa 35 puntutik gorakoa ez bada.

– 21.1.b) artikulua eremuan sartutako proiektuetarako:

a.1.– Jardueraren interesa, kalitatea eta originaltasuna (% 20).

a.2.– Sektore- eta/edo lurralde-eragina (% 15).

b) Garapen- eta hedapen-plana (% 15).

c) Proiektuaren aurrekontua eta finantzaketa, honako hauen arabera:

c.1.– Xehetasuna eta koherentzia (% 10).

c.2.– Autofinantzaketa-maila (% 5).

2.– Bigarren balorazio-fasea (guztizko puntuazioaren % 35).

Lehenengo fasea gainditu duten proiektuak baloratuko dira, eta, beraz, puntuazioa handitu ahal izango dute, puntuazio orokorrarekiko irizpide eta ehuneko hauen arabera:

d) Musika-taldearen eta/edo proiektuaren ardura duten taldeen ibilbidea, honako hauen arabera:

– 21.1.a) artikulua eremuan sartzen diren proiektuetarako eta egungo taldeari edo musika-proiektuari dagokionez:

d.1.– Interesa eta eragin artistikoa (% 5).

d.2.– Argitaratutako disko kopurua, guztira (% 5).

d.3.– 2021. eta 2022. urteetan eginiko kontzertu kopurua (% 5).

– 21.1.b) artikulua eremuan sartutako proiektuetarako: entitate antolatzailearen ibilbidea (% 15).

e) Proiektuan euskarak duen presentzia; % 10 arte, erreferentzia hauen arabera:

e.1.– Testua euskaraz duten edo osorik euskaraz garatu diren proiektuak (% 10).

e.2.– Eduki elebidunak dituzten proiektuak edo % 50ean euskaraz garatu direnak (% 5).

f) Emakumeen presentzia proiektuko jardueretan; % 10 arte, erreferentzia hauen arabera:

f.1.– Musikaren lidergo artistikoa (% 5).

f.2.– Emakumeen heren bat edo gehiago prestakuntza artistikoan edo zuzendaritza- eta anto-  
laketa-lanetan (% 5).

#### IV. KAPITULUA

##### MUSIKA-EKIMEN ENPRESARIALEN MODALITATEA

23. artikulua.– Xedea eta baldintzak.

1.– Dirulaguntza modalitate hau musika-proiektuak garatzen laguntzeko da, 24. artikuluan araututakoaren arabera.

2.– Hargatik eragotzi gabe 3.1 artikuluan aipatzen diren baldintzak, eskatzaileek baldintza hauek egiaztatu behar dituzte.

a) 2020. urtea baino lehen egitura juridiko berberaren bitartez enpresa-jarduera garatu izana, hauetako arloren batean:

a.1.– Musika-ekoizpena.

a.2.– Musika-jardueraren ikerketa eta/edo zabalkundea.

a.3.– Publikoen prestakuntza eta sentsibilizazioa.

b) 21.1.a) artikulua eremuan sartzen diren jardueretarako: 2022. urtean, musika-proiektu berezituak dituzten 4 euskal artista edo talderi gutxienez, enpresa-zerbitzua eman izana.

c) 21.1.b) artikulua eremuko jardueretarako: 2018. urtetik, antzeko ezaugarriak dituzten gutxienez 2 proiektu garatu izana.

3.– Ezingo dute modalitate honetan sartu elkartearen edo fundazioaren forma juridikoa duten erakundeek.

24. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak eta dirulaguntzen muga.

1.– Modalitate honen bitartez, diruz lagundu daitezke:

a) 21.1 artikuluan aipatutako jarduera guztiak (Musika-proiektu unitarioen modalitatean).

b) Entitatea musika-jarduera eta -industriaren egungo egoerara egokitzeko ekintza espezifikoak.

2.– Modalitate honetan diruz lagundu eta baztertutako jarduerari dagokienez, 21. artikuluko 2., 3. eta 4. paragrafoak ere aplikatuko dira.

3.– Modalitate honetan, onuradun bakoitzeko eskabide bakarra lagundu ahal izango da diruz. Hala ere, eskaera horren barruan gehienez 3 jarduera desberdin sartu ahal izango dira: gehienez hiru, 21.1.a) artikuluan definitutako multzoari buruzkoak, eta bakarra, integrala, 21.1.b) multzoari dagokionez.

4.– Aurreikusitako jarduera bakoitzerako gehienez 15.000 euro eskatu ahal izango dira, eta modalitate horretako onuradun bati eman beharreko gehieneko zenbatekoa ezingo da 22.500 eurotik gorakoa izan.

5.– Modalitate horren ebazpenean, hala badagokio, erakunde onuradun bakoitzari emandako zenbateko osoa adieraziko da, bai eta diruz lagundutako jarduera zehatzak ere.

25. artikulua.– Esleipen-irizpideak.

Dirulaguntzen esleipena 2.2 eta 10 artikuluetan adierazitako prozeduraren eta ondoren zehazten diren irizpideen arabera egingo da.

1.– Lehen balorazio-fasea (guztizko puntuazioaren % 60).

Fase honetan, Balorazio Batzordeak irizpide eta ehuneko hauek aplikatuko ditu puntuazio orokorri dagokionez:

a) Proiektuaren interesa eta balio artistiko-kulturala (% 35).

– 21.1.a) artikuluan jasotako proiektuen kasuan:

a.1.– Balio musikal-artistiko orokorra eta berrikuntza maila.

a.2.– Ondare-balioa.

a.3.– Musikaren hedapenerako eta sentsibilizaziorako ekarpenak.

a.4.– Kanpoko musika-talde edo artistekiko lankidetzak eta ekoizpen artistikoa.

Irizpide horietako bakoitza gehienez 25 punturekin baloratu ahal izango da, batura osoa 35 puntutik gorakoa ez bada.

– 21.1.b y 24.1.b) artikuluen eremuan sartutako proiektuetarako:

a.1.– Jardueraren interesa, kalitatea eta originaltasuna. (% 20).

a.2.– Sektore- eta/edo lurralde-eragina (% 15).

b) Garapen- eta hedapen-plana (% 10).

c) Proiektuaren aurrekontua eta finantzaketa, honako hauen arabera:

c.1.– Xehetasuna eta koherentzia (% 10).

c.2.– Autofinantzaketa-maila (% 5).

2.– Bigarren balorazio-fasea (puntuazio globalaren % 40).

Lehenengo fasea gainditu duten proiektuak baloratuko dira, eta, beraz, puntuazioa handitu ahal izango dute, puntuazio orokorrarekiko irizpide eta ehuneko hauen arabera:

d) Entitate eskatzailearen balorazioa, Euskadiko musika-jarduera profesionalaren ekoizle eta hedatzaile gisa, honako hauen arabera:

d.1.– Langileen bolumena (% 10).

d.2.– Antzintasuna (% 5).

d.3.– Erakundearen ibilbide orokorra eta enpresa musika-jardueraren egungo egoerara egokitzea (% 5).

e) Euskararen presentzia, % 10eraino, erreferentzia hauen arabera:

e.1.– Euskarazko edukia edo osorik euskaraz garatutako jarduera (% 5).

e.2.– Erakundearen ibilbidea euskarazko musika-jarduerari dagokionez, katalogoaren edo egindako jardueraren arabera (% 5).

f) Emakumearen presentzia, % 10eraino, erreferentzia hauen arabera:

f.1.– Lidergo artistikoa edo % 50etik gorako presentzia jardueran (% 5).

f.2.– Enpresaren zuzendaritza- eta antolaketa-lanetan emakumeen herena edo gehiago egotea (% 5).

## V. KAPITULUA

### ZUZEN-ZUZENEAN ZIRKUITUAREN MODALITATEA

26. artikulua.– Xedea eta baldintzak.

1.– Dirulaguntza modalitate honen xedea zuzeneko musika-aretoen jarduera babestea da, 27. eta 28. artikuluetan araututakoaren arabera.

2.– 3.1 artikuluan adierazitako baldintzei kalterik egin gabe, eta programazioa egingo den aretoari dagokionez, eskatzaileek honako hauek egiaztatu beharko dituzte:

a) Lokalaren eta/edo haren programazioaren kudeaketaren titulartasuna.

b) Ordain-sarrera bidez, gutxienez musika-ekitaldi kopuru hau programatu izana 2022. urtean, kanpoan utzita DJ saio eksklusiboak eta ospakizun partikularrak:

– 100.000 biztanletik gorako herriak: 16.

– Gainerako herriak: 10.

3.– Era berean, programa garatuko den aretoek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Euskararen eremu geografikoaren barruan egotea (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Hirigune Elkargoa).

b) Musika-ekitaldietarako hirigintza- edo udal-lizentzia eta gainerako erantzukizun zibileko asaguruak izatea.

c) Gutxienez 120 pertsonako legezko edukiera izatea.

d) Musika-programaziorako ekipamendu eta teknikari egonkorrak izatea.

27. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak eta dirulaguntzen muga.

1.– Modalitate honetan diruz lagun daitezkeen jarduerak honako hauek dira:

a) Musika-programazioa.

Deialdian parte hartzen duten entitateek dir-laguntza eskatu ahal izango dute ondorengo ezauzgarriak betetzen dituzten gutxienez 3 eta gehienez 9 kontzertu programatzeko:

a.1.– Musika-talde nagusia Euskal Herrikoa izatea edo haren ohiko errepertorioan euskara izatea hizkuntza erabiliena.

a.2.– Ordainpeko kontzertuak izango dira, eta, programa bikoitzen kasuan, gutxienez 200 euroko katxea (BEZ kanpo) ordaindu beharko diote parte hartzen duten edozein talderi.

b) Jarduera osagarriak.

Deialdi honetara sartzen diren erakundeek programazioaren jarduera osagarrien programa bat ere aurkeztu ahal izango dute, eremu hauetako batean edo gehiagotan:

b.1.– Publikoen prestakuntza edo sentsibilizazioa.

b.2.– Musika-talde berriekiko prestakuntza-jarduerak.

b.3.– Musikako profesionalen etengabeko prestakuntza.

b.4.– Aretoko kultura-jardueraren hedapena.

Jarduera horiek programa kontzentratu baten inguruan edo jarduera puntual gisa egituratu ahal izango dira, betiere deialdian jasotako denbora-tartean.

Programak honako hauek aurreikusi beharko ditu: erreferentziako egutegia, helburuak, hartzaileak, edukia, metodologia, baliabideak eta aurrekontua.

2.– Modalitate honen zuzkidura ekonomiko osoa honela banakatuko da: 140.000 euro programazioaren atalerako eta 80.000 euro jarduera osagarrietarako eta, hala badagokio, Ebazpenak banakatuko du, eskatzaile bakoitzari atal bakoitzean emandako zenbatekoa.

3.– Modalitate honetan, gehienez 28.000 euroko dirulaguntza eman ahal izango da, honako erreferentzia partzial hauen arabera:

a) Gehienez 18.000 euro programazioaren atalerako (27.1.a artikulua).

b) Gehienez 10.000 euro jarduera osagarrietarako (27.1.b artikulua).

28. artikulua.– Dirulaguntzak esleitzeko irizpideak eta banaketarako prozedura.

Modalitate honetako dirulaguntzak jarraian zehazten diren irizpide eta prozeduren arabera esleituko dira.

1.– Programazioaren atala.

1) Eskatzaile bakoitzak atal honetan lortuko duen puntuazioa baremo objektibo honen arabera kalkulatu da:

a) Ordaindutako musika-programazio egiaztatua 2022an, erreferentzia hauen arabera:

a.1.– Programatutako musika-taldeen guztizko kopurua (% 35).

a.2.– Talde nagusi gisa programatutako euskal taldeen kopurua (% 20).

a.3.– Nagusiki euskarazko errepertorioa duten talde programatuen kopurua (% 20).

a.4.– Emakumeen lidergoa edo presentzia nagusia duten taldeen kopurua (% 15).

b) Antzinasuna Zuzen-Zuzenean zirkuituko parte-hartzaile gisa (% 10).

2) Atal honetarako erabilgarri dagoen kopurua honela banatuko da:

a) Aretoek lortutako puntuazio zuzenak indize proportzional batera murriztuko dira, 3 eta 9 arteko tartean. Indize hori modulu estandar honekin biderkatuko da, aretoaren edukieraren arabera: 120 eta 199 euro artean: 1.600 euro; 200 eta 399 euro artean: 1.800 euro; 400 eurotik gora: 2.000 euro.

b) Aurreko kalkulutik abiatuta, eman beharreko azken zenbatekoak kalkulatu dira, 4.6 eta 27.3.a) artikuluetan adierazitako dirulaguntzen gehieneko mugak errespetatuz eta jarduera-bloke honetan erabilgarri dagoen kopurua agortu arte.

2.– Jarduera osagarrien atala.

1) Bloke honen balorazioa irizpide hauen arabera egingo da:

a) Aurkeztutako proiektuaren balorazioa (puntuazio osoaren % 75), hauen arabera:

a.1.– Proiektuaren interes orokorra (% 20).

a.2.– Lurralde- eta sektore-eraginaren maila (% 20).

a.3.– Garapen eta Hedapen Plana (% 20).

a.4.– Aurrekontuaren koherentzia (% 15).

b) Entitatearen jardueraren balorazioa 2019tik, honako hauei dagokienez:

b.1.– Jarduera-bloke honetan sartutako jardueren esparruan aretoak garatutako programa propioak (% 15).

b.2.– Herriko plataformetan edo beste kultura-jarduera batzuetan laguntzea (% 10).

2) Jarduera-atal honetarako erabilgarri dagoen kopurua puntuazioaren % 55 gainditzen duten proiektuen artean banatuko da, betiere 4.6 eta 27.3.b) artikuluetan aurreikusitakoa aplikatuz.

## VI. KAPITULUA

### MUSIKA-ZIKLOEN MODALITATEA

29. artikulua.– Xedea eta baldintzak.

1.– Dirulaguntzen modalitate honen helburua ekimen pribatutik bultzatutako musika-ziklo espezializatuak antolatzen laguntzea da, 30. artikuluan araututakoaren arabera.

2.– Hargatik eragotzi gabe 3.1 artikuluan ezarritako baldintzak, honako alderdi hauek egiaztatu beharko dituzte:

a) Eskatzaileari dagokionez: musika-jarduerarekin, oro har, eta proiektuaren xede den zikloaren musika-gai zehatzarekin lotutako profila eta ibilbidea, 2012az geroztik gutxienez.

b) Musika-zikloari dagokionez: programaren antzinasuna eta jarraitutasuna, genero-erreferentzia eta hedapen-marka berdintsuarekin, gutxienez 2014tik, eta gutxienez 8 edizio.

c) Zikloaren 2022ko edizioari dagokionez, 30. artikuluan 1.d) paragrafoa betetzen dela egiaztatu beharko da.

30. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak eta dirulaguntzen muga.

1.– Dirulaguntzaren xede den musika-zikloaren 2023-2024 edizioak honako baldintza hauek egiaztatu beharko ditu:

a) Programazioaren edukia musika-genero espezifiko batean espezializatu izatea.

b) Programazio-egutegia, gutxienez lau hilabetekoa, deialdirako ezarritako denbora-eremuaren barruan (1.3 artikulua) eta 12 kontzertu data gutxienez.

c) Parte hartzen duen edozein musika talderi 300 euroko gutxienerako katxea ordaintzea (BEZ kanpo).

d) Gutxienez honako hiru baldintza hauek betetzen direla egiaztatzea:

d.1.– Erreferentziazko kalitate-programa genero horretan, parte hartzen duten musikarien edo musika-taldeen mailari dagokionez.

d.2.– Programazioa Euskal Herriko hiru lurraldetan gutxienez.

d.3.– Gutxienez 15 kontzertu-data.

d.4.– Euskal Herriko musikarien interpreteen eta/edo obren % 40ren gutxienerako ehuneko.

d.5.– Aurreikusitako kontzertuen herenean, gutxienez, ordainpeko sarrera izatea.

d.6.– Beste bi erakunde publikoren finantza-laguntza izatea.

2.– Kanpoan geratuko dira:

a) Jaialdi gisa izendatutako musika-programak edo 30.1.b) paragrafoan adierazitakoa baino denbora-tarte laburragoan programatutakoak.

b) Izaera orokorreko beste ekitaldi batzuen esparruan edo beste jarduera-mota batzuen osagari gisa sartutako programak.

c) Orain arte ziklo espezializatu gisa identifikatu gabeko musika-areto edo -sustatzaile baten ohiko programazioa.

3.– Proiektuek zehaztu egin beharko dute zenbat kontzertu egingo diren, bai eta gutxi gora-beherako egutegi bat ezarri ere, eta, gainera, aurreikusitako kontzertu guztien % 30, gutxienez, ondo-ondo xehatu beharko dituzte; aurrekontu xeheaz gain, dagokion eskaera ekonomikoa ere zehaztu beharko dute, eta ezingo dituzte deialdian ezarritako mugak gainditu.

4.– Modalitate honetan, onuradun bakoitzeko proiektu bakar batek jaso ahal izango du dirulaguntza, eta eskatu eta eman beharreko gehieneko dirulaguntzak ezin izango du 18.000 eurotik gorakoa izan.

31. artikulua.– Esleipen-irizpideak.

Dirulaguntzen esleipena 2.2 eta 10 artikuluetan adierazitako prozeduraren eta ondoren zehazten diren irizpideen arabera egingo da.

1.– Lehen balorazio-fasea (guztizko puntuazioaren % 65).

Fase honetan, Balorazio Batzordeak irizpide eta ehuneko hauek aplikatuko ditu puntuazio orokorrari dagokionez:

a) 2023-2024 programaren kultura-interesa eta -kalitatea, honako hauen arabera:

a.1.– Erreferentzialtasuna Euskal Herriko musikaren panoraman eta programazioaren kalitatea (% 15).

a.2.– Prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduera paraleloak (% 5).

b) Programaren erreferentzia objektiboak, honako hauen arabera:

b.1.– Kontzertu kopurua (% 5).

b.2.– Euskal interpretatzaileen edo obren kontzertuen kopurua (% 5).

b.3.– Programaren denboraldiaren iraupena (% 5).

b.4.– Programaren lurralde-hedapena (% 5).

c) Garapen- eta hedapen-plana (% 10).

d) Proiektuaren aurrekontua eta finantzaketa, honako hauen arabera:

d.1.– Xehetasuna eta koherentzia (% 10).

d.2.– Autofinantzaketa-maila (% 5).

2.– Lehenengo fasea gainditu duten proiektuak baloratuko dira, eta, beraz, puntuazioa handitu ahal izango dute, puntuazio orokorrarekiko irizpide eta ehuneko hauen arabera:

e) Erakunde eskatzailearen ibilbidea eta egungo jarduera (% 10).

- f) Musika-programaren ibilbidea (% 5).
- g) Euskararen presentzia (programazioa, sustapena, jarduera paraleloak) (% 10).
  - g.1.– Jarduera paraleloetan (% 5).
  - g.2.– Musika-programan: edukiak eta hedapen-materialak (% 5).
- h) Emakumearen presentzia -gehienez % 10eraino-, erreferentzia hauen arabera:
  - h.1.– Emakume interpreteen eta emakumeek konposaturiko obren kopurua (% 10eraino).
  - h.2.– Programa zuzendu eta antolatzeko lanetan edo jarduera paraleloetan hizlari gisa emakumeak egotea (% 5eraino).

#### LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzen programa Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren mende dago. Erregelamendu horren bidez, zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Itunaren 107. eta 108. artikuluko aplikatuz (AO, L 187, 2014-06-26koa); zehazki, 53. artikuluan (Kulturarako eta ondarea kontserbatzeko laguntzak) jasotakoen mende.

#### BIGAREN XEDAPEN GEHIGARRIA

1.– Datu pertsonalen tratamenduek baldintza hauek bete beharko dituzte: datu pertsonalen babesari buruzko egungo araudia; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio eskeari dagokienez, eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

2.– Ezarritako segurtasun-neurriak bat datoz urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuak onartutako II. eranskinarekin (Segurtasun-neurriak) –3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren eremuan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena–.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan, bi hileko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 2a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.